



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ESKOLA GAITASUNAK ETA EUSKAL CURRICULUMA

IKASLEAREN GIDA

Lehen Hezkuntzako Gradua - 3. maila

2026/2027 ikasturtea

AURKIBIDEA


AURKIBIDEA.....	2
1. MODULU LANAREN TESTUINGURUA ETA BERARIAZKO GAITASUNAK.....	3
2. MODULUKO IRAKASGAIAK ETA IRAKASLE TALDEA.....	4
3. K5 MODULU LANAREN EZAUGARRIAK.....	4
3.1. Modulu lanaren helburua.....	4
3.2. Ikasle-taldeak eta tutore-bikoteak.....	7
3.3. Modulu lanaren kronograma.....	7
4. LANAREN FASEAK ETA ZEREGINAK.....	8
4.1. Modulu lanaren faseak.....	8
1. fasea: Ikas-egoerak zer diren eta nola diseinatzen diren ulertzea.....	8
2. fasea: Ikas-egoeraren diseinura hurbiltzea.....	8
3. fasea: Ikas-egoera diseinatzea.....	8
4. fasea: Irakaslearen feedback-a jasotzea.....	9
5. fasea: Behin-betiko ikas-egoera aurkeztea.....	9
4.2. Ikasle eta irakasleen zereginak.....	9
5. ENTREGAGAIK.....	11
5.1. Lan idatzia edo txostena.....	11
5.2. Posterra.....	11
5.3. Plagioa eta Adimen Artifiziala.....	11
6. EBALUAZIO-SISTEMA ETA DEIALDIAK.....	12
6.1. Ebaluazio-sistema.....	12
6.1.1. Etengabeko ebaluazioa.....	12
6.1.2. Azken ebaluazioa.....	13
6.2. Deialdiak eta ebaluazioa.....	14
6.3. Kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko prozedura.....	14
7. ERREFERENTZIAK.....	14
8. ERANSKINAK.....	16
9.1. Lan idatziaren ebaluaziorako errubrika.....	16
9.2. Posterraren ahozko aurkezpenaren ebaluazio errubrika.....	17

1. MODULU LANAREN TESTUINGURUA ETA BERARIAZKO GAITASUNAK

Gida honetan, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten den Lehen Hezkuntzako graduako K5 moduluari, Eskola Gaitasunak eta Euskal Curriculumuma izenekoari, dagokion diziplinarreko lana aurkezten da. Modulu hori Lehen Hezkuntzako graduaren hirugarren mailan irakasten da (1. irudia).

1. irudia

Eskola Gaitasunak eta Euskal Curriculumuma modulua Lehen Hezkuntza graduan



Horrela, 1. irudian jasota dagoen moduan, K5 moduluaren graduako 3. mailako ikasgai guztiek parte hartzen dute. Moduluaren bidez berariazko gaitasun hauek lortu nahi dira:

- Irakaskuntzara bideratutako baliabide eta estrategia didaktikoak banaka eta taldean aztertu eta konparatzea, eta aldi berean komunikazioaren eta informazioaren teknologia erabiltzea.
- Etapa honetako esperientzia eremueterako proposamen didaktikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, praktikaren arazoei eta erronkei buruz gogoeta eginez, ikasleen hezkuntza beharrianak, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak artatzea xede izanda.
- Komunikazioaren eta adierazpenaren trebetasunak hobeto menderatzea.

2. MODULUKO IRAKASGAIAK ETA IRAKASLE TALDEA

Ondoko 1. taulan moduluko irakasgaiak eta irakasle-taldea daude:

1. taula

K5 moduluko irakasgaiak eta irakasleak

Irakasgaia	Irakasleak	Posta elektronikoa	Bulegoa
Natura Zientziak LHko ikasgelan II	Aritz Ruiz M ^a Arritokieta Ortuzar	aritz.ruiz@ehu.eus arritxu.ortuzar@ehu.eus	B.9 2.3
Gizarte Zientziak eta bere Didaktika II Social Sciences and their Teaching II	Dorleta Apaolaza Joseba Longarte Aritza Sáenz del Castillo	dorleta.apaolaza@ehu.eus josebajon.longarte@ehu.eus aritzsa.senzdelcastillo@ehu.eus	2.1 PDI 03 1.2
Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika	Judit Martínez Saioa Urrutia	judit.martinez@ehu.eus saioa.urrutia@ehu.eus	1.3 2.6
Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika	Andrea Perales Olatz Etxebarria	andrea.perales@ehu.eus olatz.etxebarria@ehu.eus	B5 B4
Matematika eta bere Didaktika II Matemática y su Didáctica II	Elena Agirre	elena.agirre@ehu.eus	2.1
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika	Paloma Rodríguez Karla Fernández de Gamboa	paloma.rodriguez@ehu.eus karla.fernandezdegamboa@ehu.eus	B7 B6

Koordinazioa: Dorleta Apaolaza Llorente (dorleta.apaolaza@ehu.eus)

3. K5 MODULU LANAREN EZAUGARRIAK

3.1. Modulu lanaren helburua

Modulu lan honen helburu nagusia ikas-egoeren bidezko ikas-irakaskuntza ezagutu eta baliatzen ikastea da. Egungo EAEko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak (77/2023 Dekretua, 2023, 4 or.) honela definitzen ditu ikas-egoerak:

Ikasleei funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak garatzea eskatzen dieten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak aukera ematen du konpetentzien arabera ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarrian dauden jakintza eta gaitasunak uztartzen dituzten egoeratan oinarrituta egituratzeko ikasturte-programazioa edozein maila, arlo, ikasgai edo eremutan.

Hona hemen egungo curriculumeko hainbat definizio (77/2023 Dekretua, 2023, 4-5 or.):

- a) **Helburuak:** funtsezko konpetentziak eskuratuz ikasleek etaparen amaierarako iritsi beharko lituzketen lorpenak.
- b) **Irteera-profila:** oinarrizko hezkuntza amaitzerako ikasle guztiek konpetentzietan iritsi behar duten maila, aukera emango diena bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko konpetentziak garatzen jarraitzeko.
- c) **Funtsezko konpetentziak:** ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapenerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarte-inklusioa eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.
- d) **Konpetentzia espezifikoak:** arlo eta ikasgai bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin behar duten neurriak. Konpetentzia espezifikoak alde batetik funtsezko konpetentziak eta bestetik ikasgaietako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira.
- e) **Ebaluazio-irizpideak:** arlo edo ikasgai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleek ikaskuntza-prozesuaren une jakin batean iritsi beharko lituzketen jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.
- f) **Oinarrizko jakintza:** arlo, ikasgai edo eremuetako berezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak, edozein pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituenak konpetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunekin batera, problemak konpontzeko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko (2. taula). Curriculum-proposamen honetan, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenarengatik hautatzen dira oinarrizko jakintza horiek, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen.
- g) **Ebaluazio hezitzailea:** irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera erregulatzaila duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitzeko.

- h) **Eremua:** curriculumaren antolaketa globalizatua eta diziplinartekoa, zenbait diziplina elkarren artean erlazionatzen dituenak, eta ikasgaien edo arloen atalen batura baino gehiago dena. Eremuak bertan sartutako arloei edo ikasgaiei dagozkien konpetentzia espezifikak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintza biltzen ditu.
- i) **Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU):** curriculumak garatzeko printzipioak dira, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen dietenak, eta haien helburua benetako inklusio eta parte-hartzea lortzea da, ikasle guztientzat ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz eta ikasteko aukerak maximizatuz.

2. taula

Arloak eta funtsezko konpetentziak Lehen Hezkuntzan

Arloak	Funtsezko konpetentziak
– Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza. – Arte Hezkuntza. – Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa. – Heziketa Fisikoa. – Atzerriko Hizkuntza. – Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura. – Matematika.	– Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia. – Konpetentzia eleaniztuna. – Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM, ingeleseko siglen arabera). – Konpetentzia digitala. – Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. – Herritartasunerako konpetentzia. – Ekintzailtza-konpetentzia. – Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Arlo bakoitzak bere oinarritzko jakintzak, konpetentzia espezifikak eta ebaluazio irizpideak ditu (77/2023 Dekretuaren 1. eranskinean jasota).

Garapen iraunkorrerako 2030eko mundu-agenda berriak argi eta garbi islatzen du hezkuntzaren esparruan erantzun egokia emateak duen garrantzia. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan (GIH) esplizituki aipatzen da hezkuntza, laugarrenean, zehazki. Halaber, hezkuntzarekin lotutako helburu eta adierazleak ageri dira beste GIHetan ere. Kalitatezko hezkuntza, alde batetik, xede bat da bere baitan, eta, bestetik, gainerako GIHak lortzeko bitartekoa da, garapen iraunkorraren osagai delako, bai eta garapen hori errazteko oinarritzko bidea ere. Horregatik, ezinbesteko estrategia bat da hezkuntza GIHak lortu ahal izateko.

Modulu lan hau, berez, 2030 Agendak barne biltzen dituen zenbait helbururekin lotzen da: hasteko, kalitatezko hezkuntza (GIH 4) bultzatzen du nagusiki; alegia, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea guztientzat. Bestetik, genero-berdintasuna (GIH 5: generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea) eta hizkuntza eta kultur aniztasuna (GIH 18) lantzea ditu helburu.

3.2 Ikasle-taldeak eta tutore-bikoteak

Lehen Hezkuntza graduko 3. mailako ikasleek 4 kideko taldeetan antolatuta ikas-egoeretan zentratutako lana egingo dute. Ikasle-taldeak ofizialki onartuta gera daitezten, talde bakoitzeko idazkariak talde-fitxa osaturik igoko du eGelan baliatuko den estekara, kronograman azaldutako epean. Talde bakoitzak tutore-bikote bat izango du eta tutoreen ezagutza-arloak landuko ditu diziplinartekotasunez; koordinatzaileak argitaratuko du ikasle-taldeen eta tutore-bikoteen zerrenda kronograman adierazitako datan.

3.3 Modulu lanaren kronograma

Hurrengo 3. taulan modulu lanaren eginkizunen kronograma azaltzen da.

3. taula

Modulu lanaren kronograma

2026 -2027 IKASTURTEKO KRONOGRAMA	
Astea (eguna)	Zeregina
1	R5 moduluaren aurkezpena.
4	Taldeen zehaztapena + tutoreen esleipena.
5-6	1. fasea: Ikas-egoerak zer diren eta nola diseinatzen diren ulertzea. <i>Nahitaezko hitzaldia</i>
6-8	1. fasea: Ikas-egoerak zer diren eta nola diseinatzen diren ulertzea. Ikas-egoeraren justifikazioa eta abiapuntu teorikoa.
8 (urriak 30)	2. fasea: Ikas-egoeraren hasierako diseinura hurbiltzea (1. entrega).
19-20 (otsailak 18-24)	3. fasea: Ikas-egoera diseinatzea (modulu asteak).
22 (martxoak 11)	4. fasea: 1. entrega zuzenduta jasotzea.
23 (martxoak 16)	4. fasea: Tutore-bikoteekin bilera <i>feedback</i> -a berrikusteko.
27 (apirilak 20)	5. fasea: Behin-betiko ikas-egoera aurkeztea lan idatzian. Posterraren aurkezpena.
Fakultateko webgunean	Ohiko eta ezohiko deialdiak. <u>Azken ebaluazioa:</u> moduluari dagokion atala ebaluatzeko proba ikasgai bakoitzean.

4. LANAREN FASEAK ETA ZEREGINAK

4.1. Modulu lanaren faseak

1. fasea: ikas-egoerak zer diren eta nola diseinatzen diren ulertzea

Lehenengo fase honetan, alderdi nagusiak hauek dira:

- Hitzaldia: EAEko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak eta ikas-egoerak.
- Ikas-egoeren inguruko informazio teorikoa eta praktikoa lotu oinarritzko bibliografia irakurrita (ikus erreferentziak).

2. fasea: ikas-egoeraren diseinura hurbiltzea

Bigarren fasean, teorian ikasitakoa praktikara eraman beharko da. **Talde bakoitzak 2 orrialdeko hurbilpen teorikoa eta praktikoa egingo du, hurrengo alderdiak kontuan hartuz:**

- Behin tutore-bikoteak esleituta, ikasleek jakingo dute zein diziplina landu beharko dituzten.
- Dokumentu horretan justifikatu beharko da zein den landuko duten gaia. Horretarako, hiru galdera izango dira abiapuntu:
 - **Zer?** Zein da landuko den gaia.
 - **Zergatik?** Alegia, nola justifikatzen da gai horren garrantzia EAEko testuinguruan: 2030 Agenda eta GIHak, zeharkako gaiak, curriculumarekin lotura,
 - **Nola?** Zein metodologia erabiliko da. Azaldu nola txertatzen duzuen Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (IDU) (ikus definizioak).
- Dokumentu hau ez da ikas-egoera definituko duen behin-betiko bertsioa, baizik eta ikas-egoeraren diseinuaren abiapuntua. Ikas-egoeren atzeko ikuspegi didaktikoarekin hausnarketa egiteko momentua da.
- Entrega data: Urriak 30, eGelan baliatuko den estekan.

3. fasea: ikas-egoera diseinatzea

- Ikas-egoeraren diseinua aurrera eramateko, ikasturtearen 19. eta 20. asteetan (otsailak 18-24) ikasgai guztietan modulu astea jarriko da martxan. Bertan, ikasle-talde bakoitzak beren ikas-egoera diseinatzeko aukera izango du. Bigarren asteko asteazkenean, azkenengo orduan, lana eGela bidez entregatuko

da. Klasera etortzea ezinbestekoa da irakasleen gidaritza izateko eta talde lan erreala gauzatzeko.

- Ikas-egoera behar bezala diseinatzeko, ezinbestekoa izango da eGelan eskuragarri dauden III. eta IV. eranskinak erabiltzea: III. Ikas-egoeren azalpena eta IV. Ikas-egoerak diseinatzeko txantiloia.

4. fasea: irakaslearen feedback-a jasotzea

- Tutore-bikoteak 22. astean ikasle-talde bakoitzari behin-behineko dokumentu zuzendua emango dio, behin-betiko bertsioa prestatu ahal izateko.
- Hurrengo astean, martxoaren 16an, 12:00/30-14:00 tartea erabiliko da ikasleak tutore-bikoteekin biltzeko, emandako *feedback*-a berrikusteko.

5. fasea: behin-betiko ikas-egoera aurkeztea

- Talde bakoitzak lanaren txostena entregatuko du apirilaren 20rako, eGelan baliatuko den estekan.
- Modu berean, ikasle-talde bakoitzak ikas-egoeraren alderdi nagusiak islatzen dituen poster bat diseinatuko du, eta ikasturte akademikoaren 27. asteko asteartean (apirilak 20) 12:00/30 14:00 tartean aurkeztuko du. Posterra aurkezteko 5-10 minutu izango dira, irakasle-tutoreen eta beste ikasle-taldeen aurrean.

4.2. Ikasle eta irakasleen zereginak

Fase guztiak kontuan hartuta, 4. eta 5. taulek irakasle eta ikasleen zereginak eta datak laburbiltzen dituzte.

4. taula

Ikasleen zereginak eta data garrantzitsuak

Ikasleen zereginak eta data garrantzitsuak	
Data/Astea	Zeregina
5. astea	Hitzaldira joan.
8. astea (Urriak 30)	Entregatu ikas-egoeraren hasierako diseinua.
19-20. asteak (otsailak 18-24)	Modulu astean parte hartu eta entregatu txostenaren 1. Bertsioa.
27. asteko asteartean (apirilak 21)	Behin-betiko txostena entregatu eta posterra aurkeztu.

12:00/30-14:00	
Fakultateko webgunean	Deialdi ofizialetako ebaluazioak.

Bertaratzearen inguruko oharra: Etengabeko ebaluazioa jorratzeko, hurrengo zereginak ezinbestekoak dira:

- Modulu asteko saioen %80ra bertaratzea.
- Tutoreekin izango diren bileretara talde osoa bertaratzea.
- Posterra aurkeztera joatea.

Soilik huts-egite justifikatuak onartuko dira (adib. ezinbesteko mediku hitzordua, dagokion ziurtagiriarekin gaixotasuna justifikatuta). **Ziurtagiri horiek ezin badira aurkeztu, suspentsoa izango da kalifikazioan.** Lan egiteak ez du justifikatzen huts egiterik; horretarako ez-bertaratzearen %20a erabil daiteke.

5. taula

Irakasleen zereginak eta data garrantzitsuak

Irakasle tutoreen zereginak eta data garrantzitsuak	
Data/Astea	Zeregina
5. astea	Hitzaldira joan.
Urriak 30	Ikasleen ikas-egoeren hasierako diseinuak jaso.
19-20. asteak (otsailak 18-24)	Modulu asteen parte hartu, ikas-egoeraren hasierako diseinuaren <i>feedback</i> -a eman eta txostenaren lanketa gidatu. Txostenaren 1. bertsioa jaso.
22 (martxoak 11)	Txostenaren 1. bertsioaren <i>feedback</i> -a eman eta ebaluatu.
23 (martxoak 16)	Tutore-bikoteekin bilera <i>feedback</i> -a berrikusteko.
27. asteko asteartean (apirilak 21) 12:00/30-14:00	Posterren aurkezpenak gidatu eta ebaluatu.
Fakultateko webgunean	Ebaluatu txostenak eta egin gainerako ebaluazioak ohiko zein ezohiko deialdietan.

ENTREGAGAIAK

5.1 Lan idatzia edo txostena

Diseinatuko den ikas-egoerak gutxienez 4 jarduera izango ditu, ordu bateko 6-8 saiotan banatuta, diziplinartekotasunez irakasle tutoreen bi ezagutza arloak jorratzeko asmoz. Ikas-egoeraren txostena osatzeko eGelan eskegi diren material ofizialak erabili behar dira:

- III. eranskina: Ikas-egoeraren azalpena.
- IV. eranskina: Ikas-egoera diseinatzeko txantiloia.
- V. eranskina: Ikas-egoera diseinatzeko kontrol zerrenda.

Lan idatziak **gehienez 20 orrialde** izango ditu (azala, erreferentziak eta eranskinak kontuan hartu gabe). Egiturari dagokionez, txostenak honako ezaugarriak izango ditu:

- Azala. Eredua eGelan ikusgai dago.
- Letra-mota eta tamaina. Arial 11 edo EhuSerif 11.
- Paragrafoa. Lerroarte 1,5 eta paragrafoen arteko tarte 6 puntu.
- Marjinak: 2,5 cm goian, behean, eskuin eta ezkerrean.
- Paragrafoen antolara. Justifikatua, ezker-eskuin lerrokatuta.
- Erreferentziak. APA 7 arauen arabera.

5.2 Posterra

Ikas-egoeraren alderdi nagusiak erakutsiko ditu. Posterrak 70 cm-ko zabalera eta 100 cm-ko altuera izango ditu.

5.3 Plagioa eta adimen artifiziala

Ikasleek moduluaren prozesuan zehar landutako APA arauak ezagutu eta erabili beharko dituzte. Plagioa dagoela detektatuz gero, txostena baztertuko da, eta modulu lana ez da gaindituko. Adimen artifizialaren erabilera ez aitortua plagio kontsideratuko da. Horrela, Chat-GPT, Elia, Google-eko itzultzailea edo adimen artifizialean oinarritutako beste eredu batzuk testua sortzeko edo itzultzeko erabiltzen badira, haien erabilera ez bada aitortzen edo aipatzen, hori plagio gisa hartuko da.

Modulu lana ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera

etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean *Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena* izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera; **modulu lanari dagokionez, automatikoki suspendituta egongo litzateke.**

5. EBALUAZIO-SISTEMA ETA DEIALDIAK

6.1 Ebaluazio-sistema

Bi ebaluazio mota egongo dira, bata etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleentzat eta bestea azken ebaluazioa egiten dutenentzat. Edozein kasutan bi deialdi izango dira. Modulu lanaren kalifikazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazioaren % 15 izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostutakoa izango da eta irakasgai bakoitzeko ebaluazioari gehituko zaio (baldin eta irakasgaia gainditu bada). Modulu lanaren kalifikazioa bi ikasturtez gordeko da.

6.1.1 Etengabeko ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioa duten ikasleen kasuan ezinbestekoa izango da:

- a) Gutxienez 3. mailako 4 irakasgaietan matrikulatuta egotea (Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Modulu etako Akordioen Gidari jarraituz).
- b) Matrikulatutako irakasgai guztietan etengabeko ebaluazioa egitea.
- c) Irailaren azken asterako talde baten parte izatea.
- d) Jarduera pedagogikoetan parte hartzea (hitzaldia eta modulu astea).

Bestelako zalantzarik izanez gero, jo ezazue Fakultateko Moduluko Akordioen Gidara: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea/lehen-hezkuntzako-gradua>

Etengabeko ebaluazioa duten ikasleek ikas-egoeraren txostena idatzi eta posterra aurkeztu behar dute. Ondoko taulan adierazten da ebaluazio-sistema:

6. taula

Etengabeko ebaluazioko kalifikazioak

Etengabeko ebaluazioko kalifikazioak		
Txostenaren 1. bertsioa	Behin betiko txostena	Posterra eta aurkezpena
%25	%45	%30 (% 50 ikasleek; % 50 tutoreek)

Modulu lana gainditzeko, txostena eta posterra gainditu behar dira; kontrako kasuan, ikasle-taldeak suspenditu du modulu lana lehenengo deialdian, eta taldeko ikasle bakoitza azken ebaluaziora joango da bigarren deialdian.

Koebaluazioari buruzko oharra: Beste ikasle-taldeek emandako notak eta tutore-bikoteek proposatutakoak puntu bat baino gehiagoko aldea badute, tutoreen kalifikazioa soilik hartuko da kontuan.

6.1.2 Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioa egin beharko duten ikasleak honakoak dira:

- Lehenengo deialdian etengabeko ebaluazioa gainditu ez duten ikasleak.
- Etengabeko ebaluazioa egiteko gutxienekoak betetzen ez dituzten ikasleak.
- Matrikulatutako irakasgai batean azken ebaluazioa jarraitzen duten ikasleak.


Ebaluazio-sistema hau jarraitzen duten ikasleak irakasgai bakoitzeko azterketan egingo den proba baten bitartez ebaluatuak izango dira, fakultateak horretarako dituen data ofizialetan (ohiko edota ezohiko deialdiak). Proba hori irakasgai bakoitzaren azterketa idatziaren atal bat izango da, non moduluaren gaitasunak ebaluatuak izango diren proba osoaren %15eko haztapenarekin.

6.2 Deialdiak eta ebaluazioa

Ikasturte bakoitzean bi deialdi egongo dira. Ondoko 7. taulan jasotzen dira moduluari dagozkion bi deialdiak eta ebaluazio-sistemak:

7. taula

Deialdiak eta ebaluazio-sistema



Etengabeko ebaluazioaren kasuan 2. deialdia ohiko edo ezohiko deialdikoa izango da, ikasgai bakoitzerako fakultateak webgunean iragarritako datan.

6.3. Kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko prozedura

K5 modulu lanaren kalifikazioari buruzko erreklamazioa egiteko prozedura bat dator EHUko Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiarekin.

Eskaera bideratzeko, ikasleek fakultateko idazkaritzan dagoen eskaera-orria bete eta K5eko koordinatzaileari bidali beharko diote maiatzaren 15a baino lehen, idazkian zehaztasunez aipatuz erreklamazioaren zergatia. Kasu horretan, eskaera K5eko Erreklamazio Batzordeari helaraziko zaio, eta aipatutako ebaluaziorako arautegiaren ildotik eragingo du K5eko Erreklamazio Batzordeak.

6. ERREFERENTZIAK

77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 109, 2023ko ekainaren 9a. <https://www.euskadi.eus/web01bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302729e.pdf>

- Alba-Pastor, C. (2019). Diseño universal para el aprendizaje: un modelo teórico-práctico para una educación inclusiva de calidad. *Participación educativa* 6(9), 55-68. <https://www.educacionfpydeportes.gob.es/dam/jcr:c8e7d35c-c3aa-483d-ba2e-68c22fad7e42/pe-n9-art04-carmen-alba.pdf>
- Alcalá, M. L., eta Gasque, R. (2023). Sitúate para aprender situaciones de aprendizaje en educación primaria y secundaria. *Supervisión 21: revista de educación e inspección*, 68(68). <https://doi.org/10.52149/Sp21/68.7>
- Arufe, V., Rodríguez, R., eta Ramos, O. (Coord.). (2022). *Situaciones de Aprendizaje en Educación Primaria*. Educa.
- Fernández, M. M., eta Vargas, C. (2023). Nuevo enfoque de enseñanza para la atención a la diversidad: las situaciones de aprendizaje en educación infantil y primaria. In E. López eta C. Bernal (Coord.), *Educación, tecnología, innovación y transferencia del conocimiento* (2109-2122 or.). Dykinson.
- Gómez Parra, S. (2013). Situaciones de aprendizaje y evaluación. *Padres Y Maestros* (329), 5 - 9. <https://revistas.comillas.edu/index.php/padresymaestros/article/view/1258>
- Ruiz Morales, A. (2023). Las situaciones de aprendizaje: Concepto, partes y fases para su diseño. *Revista Supervisión 21*, 68(68), 1 - 58. <https://doi.org/10.52149/Sp21/68.5> (Lehen Hezkuntzarako interesgarria dena soilik).

7. ERANSKINAK

9.1 Lan idatziaren ebaluaziorako errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikain	Ongi	Nahikoa	Gutxiegia
Terminologia eta hizkeraren argitasuna eta egokitasuna	Maila handiko terminologiaren erabilera, hizkera akademiko egokia, eraginkorra eta argia.	Terminologiaren erabilera egokia, hizkera egoki eta argia gehienetan.	Terminologiaren erabilera onargarria, baina adierazpena maiz ez da argia edo egokia.	Terminologiaren erabilera desegokia da sarri eta adierazpena iluna suertatzen da.
Ordena, koherentzia eta logika jardueren aurkezpenean	Modulu gidan zehaztutako puntu guztiak ondo azalduta agertzen dira.	Modulu gidan zehaztutako puntu guztiak agertzen dira, baina baten bat ez dago ondo azalduta.	Modulu gidan zehaztutako atal batzuk falta dira.	Ez du jarraitzen modulu gidan zehaztutako egitura.
Atazen egokitasuna alderdi ezberdinetan: diziplinartekotasuna, adin-tartea, amaierako produktua	Ikas-egoeran zehar tipologia ezberdinetako jarduerak proposatu dira, IDU baliatu da jardueren moldaketa egiteko eta jarduerak oso egokiak dira adin-tarterako.	Ikas-egoeran jarduera mota ezberdinak topatu dira, baina ez dago haien arteko koherentziarik. Jarduerak egokiak dira oro har.	Sekuentzia osoan zehar bizpahiru jarduera mota desberdin erabili dira, eta ez da kontuan izan IDU. Jarduerak ez dira umeen gaitasunetara egokitzen.	Etengabe errepikatzen da jarduera tipologia bera. Diziplinartekotasuna ez da bermatzen, eta jarduerak ez dira egokitzen umeen adin-tartera.
Curriculumeko argumentazioa	Harreman estua dago arloetako gaitasunen, oinarritzko jakintzen eta ebaluazio irizpideen artean.	Harremana dago arloetako gaitasunen, oinarritzko jakintzen eta ebaluazio irizpideen artean.	Gabezia batzuen ondorioz zaila da arloetako gaitasunen, oinarritzko jakintzen eta ebaluazio irizpideen arteko erlazioa.	Koherentzia falta da arloetako gaitasunen, oinarritzko jakintzen eta ebaluazio irizpideen artean.

Ortografia eta gramatika. Zuzentasuna ezinbestekoa da lana gainditzeko. Lana ezingo da 10 akats larri baino gehiagorekin inola ere gainditu. Akats larritzat hartuko dira komunztaduran, deklinabidean eta lokailuetan gertatzen direnak. Edonola ere, 15 ortografia edo gramatika akats baino gehiago baldin badaude, lana ezingo da gainditu.

9.2 Posterraren ahozko aurkezpenaren ebaluazio errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikain	Ongi	Nahikoa	Gutxiegi
Posterraren formatua: originaltasuna eta sormena	Formatua oso erakargarria da eta ongi egokitzen da eskatutako neurrietara.	Formatua erakargarria da eta nahiko ongi egokitzen da eskatutako neurrietara.	Formatua ez da ongi egokitzen eskatutako neurrietara, baina begietara deigarria da.	Formatua ez da ongi egokitzen eskatutako neurrietara eta ez da begietara deigarria.
Terminologia eta hizkeraren argitasuna eta egokitasuna	Maila handiko terminologiaren erabilera, hizkera akademiko egokia, eraginkorra eta argia.	Terminologiaren erabilera egokia, hizkera egoki eta argia gehienetan.	Terminologiaren erabilera onargarria, baina adierazpena maiz ez da argia edo egokia.	Terminologiaren erabilera desagokia da sarri eta adierazpena iluna suertatzen da.
Ordena, koherentzia eta logika jardueren aurkezpenean	Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira, argumentazio koherentez. Aurkibidearen eta epigrafeen erabilera zuzena.	Ideiak modu sendoan azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta hobetu daitekeen. Aurkibidearen eta ideien garapenaren artean lotura egokia.	Ordena eta koherentzia lanaren atal batzuetan antzematen den arren, ez da agertzen lan osoan zehar. Aurkibideak hutsuneren bat dauka eta epigraferen bat falta da.	Ideiak modu nahasian azaltzen dira, funtsik gabe eta ordena logiko nahikoa falta da. Lan nahasia eta astuna da jarraitzeko. Aurkibidea ez dator bat ondorengo lanarekin eta akats asko dago.
Gorputz adierazpena ahozko aurkezpenean	Ongi kokatu dira jendaurrean, gorputzaren mugimenduak eraginkorrak izan dira eta begiradek publikoari eusten diote.	Nahiko ongi kokatu dira jendaurrean, mugimendu batzuk eraginkorrak izan dira eta begirada ez da beti publikoarengan jarrita egon.	Jendaurreko kokapena ez da oso ona, mugimendua falta sumatzen da eta begiradak maiz pantailan egon dira.	Gabezia nabarmenak sumatzen dira kokapenean, gorputz adierazpenean eta jendearekiko begiradan.
Ahotsaren erabilera ahozko aurkezpenean	Ahotsaren lanketa eta bariazioak eraginkorrak izan dira. Intonazio, tenpo eta prosodiak lagundu dute jendearen arreta mantentzen.	Ahotsaren lanketa egokia izan da eta ahotsaren ezaugarriak egokiak izan dira, nahiz eta ez beti.	Ahotsaren lanketa, nahikoa izan arren, ez da oso egokia izan. Intonazioan, tenpoan eta prosodian gabeziak sumatzen dira.	Gabezia handiak daude ahotsaren erabileran.